

Elizatxo ikastolak ostiralean inauguratuko du 11 gelako egoitza berria

■ Inaxio Oliveri Jaurilaritzako Hezkuntza Sailburua eta Mertxe Etxeberria alkatea behintzat etortzekoa dira ■ Ekitaldia 12:00etan egingo da.



Elizatxo ikastolako zentro berria, obrak bukatu berritan.

ELIZATXO ikastolak egoitza berria egin du aurten eta ostiralean inauguratuko du. Ikastolak esan duenez, Eusko Jaurilaritza eta Hernaniko Udaleko ordezkariak inaugurazioan izango dira. Jaurilaritzatik Iñaxio Oliveri Hezkuntza sailburua eta Mari Karmen Marin

Gipuzkoako Delegazio burua etorriko dira. Udaletxetik, berriz, Mertxe Etxeberria alkatea eta zenbait zinegotzi.

11 GELA

Egoitza berria justu lehengoaren atzean egina dago eta 11 gela ditu denera. Horietatik 6

laugarren, bosgarren eta sei-garren mailako ikasleek erabiliko dituzte. Gainerako bostak beste zerbitzuetarako prestatu dituzte: informatika gela haundi bat, liburutegia, bideogela, erabilera anitzeko beste gela bat eta tutoretza. Inaugurazioa 12:00etan da. □

Hemen dira San Joanak

■ Larunbat eguerdian emango zaie jaiei hasiera ofiziala ■ Aurten Santa Barbara eta Txantxangorri elkarteak omenduko dituzte.

BAI, pasa da urtebete eta hemen dira aurtengo San Joanak ere. Aurten bete-betean asteburuan egokitu dira, baina,

ostiralean ere izango da giroa eta parrandarako aukera, Tilosetan jaialdia antolatu dute eta. Lehenengo axeri

dantza ez da astelehenerarte izango; festei amaiera, berriz, asteazken gauerdian emango zaie. □

■ TXIRRINDULARITZA

Egoitz Martinezentzat 54garren San Joan proba

■ Esprinean Iban Latasa ihesaldi lagunari irabazi zion.



Egoitz garaipena ospatzen eta Iban helmugan sartzen, atzo.

PROBAREN hasiera xamarrean talde batean alde egin, handik biak bereizi eta iritsi ziren helmugaraino Egoitz Martinez eta Iban Latasa. Urbieta kalean esprin luzea jo zuten, baina, ez

zen kolorerik izan: Caja Ruraleko mutilak eraman du aurtengo San Joan proba. Hirugarren Jon del Rio gelditu zen laugarren Unai Barazabal eta bosgarren Mikel Astarloza. □

EZKER ABERTZALEA

Batasuna Prozesuko azken batzarra, bihar Biterin

■ Erakunde berrirako herri eta nazio mailako karguak bozkatuko dira ■ Arratsaldeko 20:00etan.

EZKER Abertzalearen bidea eta geroa erabakitzeko Batasuna prozesua jarri zuten martxan orain urtebete pasatxo. Bihar, asteartea, azken batzarra izango da Hernanin, bidea eta ildoak zein izango diren jakinda, herriko karguak aukeratu eta nazio mailakoak bozkatzeko. Batasuna prozesuaren balorazioa ere egingo dute bertan.

AURKEZPENA IRUÑEAN Erakunde berria ekainaren 23an aukeztuko dute Iruñean. Prozesukideen arabera: "Erakunde honek, behingoagatik, ipar eta hego Euskal Herriko ahaideak batuko ditu, erritmo ezberdinetan baina ekinbide politiko bakar bat jorratuko duen erakundean, herrialde ba-koitzak berezko dituen ezuagarrin errespetutik abiatuz". □

USURBILGO HAUR ESKOLA

Haur hezuntzarako 1go zikloa
0-3 urte bitarteko haurrei zuzendua

NON
Kalexar
ORDUTEGIA
7'30etatik 19'00etara
EGUTEGIA
Astelehenetik ostiralera
irailaren hasieratik uztaila bukaera arte

INFORMAZIOA ETA IZENEMATEA
10'00etatik 12'00etara: Udal liburutegian
18'00etatik 20'00etara: Udal Idazkaritzan

ZERBITZU PEDAGOGIKOA JANTOKIA OGASUN HEZKETA ELKADURA BIKIMEN BEHEZAK

HERNANIKO UDAL EUSKALTEGIA UDAKO IKASTAROA

EUSKALDUNTZE, ALFABETATZE eta EGA. Maila guztiak.

Erritmoak: 2 ordu egunean, goizeko 9:30etatik 11:30etara

Matrikulaldia: Ekainaren 11tik 29ra.

Diru-laguntzak ere badauzkagu. 16 urtez gorakoentzat. Galde ezazu euskaltegian (Biteri Kultur Etxean)!

☎ 943 331896
e-mail: euskaltegi@hernani.net

HERNANIKO UDALA

Barceló Bidaiak

Hasi zure bidaiak Barceló Bidaiaketik.

Barceló Bidaiak

Hernaniko bidai agentzia berria

Izpizua 13 - 20.120 HERNANI
Tel 943 550311 - Faxe 943 551140

ETXE ONENAK. S.A.

GARAJE ITXIAK 'OBLATOS'ETAN SALGAI

Informatu eta saldu:
☎ 943 33.22.37

EREÑOTZUKO JAIK

Egun osoko festarekin esan zioten agur San Antoniori ereñotzuarrek

■ Dantzari, trikitilari, bertsolari, sagardo probaketa, erromeria... denetik izan zen atzo.



Dantzariak, saski bete sagar, dantzan eta jendea begira.

DUDAKO eguraldiarekin baina primerako giroan bukatu dira aurtengo San Antonioak. Atzo txistulari eta trikitilariak esnatu zituzten auzotarrak, esnatu ahala sagardo probaketara joan zitezten. Izan ziren ohea asko zapaldu gabe agertutakoak ere! Plazako dantzariak eta bertsolariak errematatu zuten goiza.

Arratsaldeko bertso jaialdia eta ilunabarreko Etxabe anaien erromeria izan ziren azkeneko ekitaldiak, suziriak bota aurretik. Baina, auzotarrak beranduxeago bukatu

MAHAI TENISA

Julene San Casimiro eta Iker Martinez San Joan Torneoko onenak



Jon Garzia (ezkerretan) eta Iker Martinez finala jokatzen.

LARUNBATEAN jokatu zen mahai teniseko laugarren San Joan Torneoa. Denera, Hernaniko eta inguruko 20 gazte txo aritu ziren jokatzen. Mutiletan Gipuzkoako txapelketa irabazi eta Euskadiko finala jokatu zuten bi iritsi ziren finalera: Iker Martinez eta Jon Garzia. Hirugarren Hodei Santxez gelditu zen eta laugarren Iñaki Herrero. Nesketan, Julene San Casimiro irabazi zuen. Bigarren Irma Rodriguez gelditu zen. Hiru eta laugarren, Alaitz Irastortza eta Aintzane Bengoetxea. □

MUS TXAPELKETAK

Manu eta Joxetxo Santa Barbarako txapeldun

■ Carlos eta Xaxiri irabazi zieten finalean
■ Hirugarren Sesma eta Kaki gelditu dira.

SANTA Barbarako mus txapelketa baditu irabazleak. Manu eta Joxetxo. Final egunean lehenbizi "afari polit bat" egin zuten elkartean eta gero hasi ziren jokoa.

Irabazleak txapelak eraman zituzten, baina, gainontzeko bikote guztiak ere ez ziren esku hutsik joan, denentzat banatu ziren sariak. Hauxe da lehengo zortzien sailkapena:
1- Manu-Joxetxo

- 2- Carlos-Xaki
- 3- Sesma-Kaki
- 4- Zelarain-Felipe
- 5- Helio-Joseba
- 6- Iñigo-Jokin
- 7- Bixente-Fernando
- 8- Txarli-Iñaki. □

PELOTA ELKARTEA

San Joanetako Jaialdirako sarrerak salgai, Kitton

PELOTA Elkartek aurtengo ere pelota jaialdia antolatu du San Joanetarako. Esnal/Elola-Oiaga/Fuertes, aurrena eta gero, Unanue/Errandonea-Olaizola IIa/Errasti. Partidua 27an da, 18:00etan. Sarrerak Kitto daude salgai. Egutegia 19:00etatik 21:00etara. □

HORBEL
TABERNA - JATETXEA

UKERDI
Nagusia 51 - Tel. 943 551 322
20120 HERNANI

PELOTA

Tutu-Iturbe aurrena eta Gorka-Legarreta bigarren Kronika txapelketa

■ Lehen hiru postuak erabakita daude eta laugarren-erako dago gerra ■ San Joanetan bukatuko da.

	BIKOTEAK	Puntuak	Tanteoa	Jokatuak
1	ITURBE-TUTU	40	241	21
2	LEGARRETA-GORKA	35	130	18
3	ASIER-ENEKO	32	80	21
4	ANGEL-IÑAKI	29	46	20
5	JOXE-ZELAIA	29	44	20
6	ION-DABID	15	-21	12
7	MAGI-TXILI	15	-14	12
8	AITZOL-INMAR	15	-75	14
9	IKER-JOSU	15	-96	15
10	JUANJO-TANI	13	-57	12
11	LEITZA-JUANMARI	11	-149	14
12	ITXATXO-XAPO	7	-107	10

Kronikako txapelketako sailkapena, txapelketako azken txanpan

ETXEBIZITZA POLITIKA EZTABAIDAN

Manuel Fraile (EH) eta Iñaki Arratibel (EA-EA) Mototoff Irratian, bihar

■ 11:40etan izango da ■ Gaur Molotoff irratian (FM 99.2an): 11:40etan M. J. Jauregi medikua umeen elikaduraz; 12:20etan EN-HAri buruz; 12:40etan Zalduarekin Hernaniko bazterretan. □

ZERBITZUAK

<p>TELEFONOAK</p> <ul style="list-style-type: none"> ☎ Taxiak: 943 550093 ☎ Udaltzaingoa: 943 333288 ☎ DYA: 943 464622 ☎ Anbulatorioa: 943 557750 ☎ Jokalari anonimoak: 943 331103 	<p>FARMAZIAK</p> <ul style="list-style-type: none"> ☎ Egunez: Sagastiberri Urbieta 7 ☎ 943 552941 ☎ Gauez: Diaz Andoain. Nagusia 19 ☎ 943 592057 <p>ASTEARTEA</p> <ul style="list-style-type: none"> ☎ Egunez: Gomez Kale Nagusia 15 ☎ 943 554892 	<p>☎ Gauez: Elizondo Andoain. Zumea 30 ☎ 943 592629</p> <p>ASTEAZKENA</p> <ul style="list-style-type: none"> ☎ Egunez: Correa Antziola 44 ☎ 943 551933 ☎ Gauez: Gorospe Andoain. Ricardo Arregi 12 ☎ 943 592415
--	--	--

IRAGARKI MERKEAK

■ Etxeko lanak egiteko emakume bat nahi genuke, aste barruan 10:00etatik 15:00etara. Interesatuak deitu: ☎ 659-13 51 86

■ 20 urteko neska euskaldun batek, haurrak zainduko lituzke uztaila, abuztua eta irailean. ☎ 943-55 18 05

Keunka
MUEBLE RUSTICO

Florida auzoa 40 - 20120 HERNANI
☎ 943. 33 32 34

Ekainaren 11tik aurrera. A partir del 11-06-01

Existentziak bukatu arteko aukera bikaina.

KOLEKZIO BUKAERA DELA ETA 4.000 MUEBLETIK GORA LIKIDAZIOAN DITUGU, PINU MAZIZOAN.

Por final de colección liquidamos mas de 4.000 muebles en pino macizo.

100 MODELOTIK GORA: LOGELA, EGONGELA, HARRERA, KOMODA, MAHAI, AULKI, SEKRETERAK ETA ERA GUZTIE-TAKO OSAGARRIAK. ARGIZARI ETA TXURIAN.

Acabado natural a la cera y color blanco, mas de 100 modelos diferentes: dormitorios, salas, recibidores, comodas, mesas, sillas, secreters y todo tipo de auxiliares.

IMPORTATUTAKO ALTZARIAK KOSTU PREZIOAN.

Muebles directamente de importación a precios de costo.

'DIA' SUPERMERCATUAREN ONDOAN GAUDE ESTAMOS JUNTO AL SUPERMERCADO 'DIA'

Astelehenetik ostiralera 15:00-etatik 19:00etara (Almazena)
De lunes a viernes de 15:00 a 19:00 h.



Hernaniko Kronikaren laguntzaile:

ORAUNE PROMOCIONES